

"Montag" liburutegi herritarraren proiektua aurkeztuko dute Egian igandean

DONOSTIA. Montag liburutegi herritarra sortzeko proiektuaren bultzatzaileek haien proposamena aurkeztuko dute igandean Egian eta horretarako liburu trukaketa bat prestatu dute Plazaundin, 11.30etik 13.30ra.

Honela, bai bizilagun nola bertaraino hurbildutako guztiek, etxetik ekarritako liburu bat beste batenarengatik aldatzeko aukera izango dute igandeko goiz guztian zehar. Gainera, proiektuaren antolatzaileek jakinarazi dutenez, ale bat ekarri eta trukatzek opari bat izango du bueltan, oraindik argitu gabekoa.

'Liburutegi aske eta herritarra' sortzeko ekimena da Montag bezala bataiatu dutena eta igandean aurkeztuko dutena. Proiektu berri honen joan-etorriak misterio bat dira oraindik. Horregatik, bultza-tzaileek donostiarrei adi egoteko eskatu nahi diete, beraien webgunean argitzen joango baitira, banaka-banaka, Montageng inguruko xehetasunak. Argibide gehiago Egian ospatuko den ekimenean jakinaraziko dituzte.